

BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ETXEBIZITZA BABESTUA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Gizarte bazterketa egoeran dagoen pertsona > Aldi baterako edo egonaldi luzeko ostatu zerbitzua

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Baztertzeko arrisku handia duten pertsonak, bizitokirik, baliabiderik eta gizarte eta familia laguntzarik ez dutenak. Bere ardurapean dauden adingabeak eta haien tutoretzapean dauden pertsona helduak, edo, tutoretzapean egon gabe, mendekotasun-arriskuan edo -egoeran daudenak eta eskatzailearekin bizi ohi direnak.

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Adina (**18 urte edo gehiago**).

Errolda (**6 hilabete**).

Bizitoki beharra eta bazterketa larria.

Zertan datza?

Tutoretzapeko etxebizitzak taldeko ostatua eskaintzen die bazterketa arrisku handiko egoeran dauden pertsonari ([1.9.2 fitxa](#)). Helburua da erabiltzaileek autoestimua, konfiantza pertsonala eta bizitza autonomia garatzeko trebetasunak garatzea. Erabiltzaileek Arreta Pertsonalizatuko Planean definitutako ekintzak egiteko konpromisoa hartu behar dute. Intentsitate baxuko zerbitzua da, eta

ez du bertako langilerik, baina Udaleko Gizarte Zerbitzuko langileen laguntza du gainbegiratze eta akonpainamendurako. Otorduak eta garbiketa ere barne har ditzake. Ahal dela, etxebizitza-eraikin arrunt batean dago.

Norentzat?

- **Bazterkeria-arrisku handiko egoeran** dauden 18 urteko edo gehiagoko pertsonak.
- Eskatzailearen bikotekideak eta/edo haren **ardurapeko pertsonak** ere erabili ahal izango dute.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

18 urte edo gehiago izatea.

Aurreko 6 hilabeteetan EAEko edozein udalerritan erroldatuta egotea.

Erreferentziako profesionalak **beharraren balorazioa** egitea.

Gizarteratzeko eta lan-arloko ibilbide bat edo ibilbide okupazional bat egiteko **konpromisoa hartzea.**

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan.**

[Kontsultatu informazio osoa](#)